

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2024ko iraila

Aurkibidea

- Gizarte Segurantzako afiliazioa
- Langabezia erregistratua
- Inflazioa
- Kanpo merkataritza
- PMI konposatua
- Sentimendu ekonomikoa

Eranskina

1. Gizarte Segurantzako afiliazioak indarra galdu zuen udan.

Ikasturtearen amaierak baldintzatu du abuztuko afiliazioen kopurua.

2. Erregistratutako langabeziak igoera nabarmena izan zuen abuztuan.

Langabeziaren gorakadak eragin berezia izan du emakumeen artean.

3. Kontsumoko prezioen hazkundera moteldu egin zen uztailan.

Euskadiko KPIa %2,9an kokatu zen hilabete horretan.

4. EAEko atzerirako esportazioak %2,0 hazi ziren bigarren hiruhilekoan.

Ekainean izandako jaitsierak (-%4,1) zalantzak sortu ditu etorkizunari buruz.

5. Euroguneko jarduera ekonomikoa zertxobait hobetu da.

PMI indize konposatuak ia puntu oso bat egin du gora eta 51,0an kokatu da.

6. Eurogunearen sentimendu ekonomikoa ezkorra da oraindik.

Gainerako sektoreek ezin dituzte industria sektorearen zailtasunak konpentsatu.



GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Gizarte Segurantzako afiliazioak indarra galdu zuen udan


Gizarte Segurantzako afiliazioak moteltzeko joera erakutsi zuen udako erdiko hilabeteetan; hala, atzean utzi ditu urte arteko %1,7ko hazkunde erritmoak, eta abuztuan %1,1eko aldakuntza tasa jaso zuen, azken urte eta erdian izandako tasarik txikiena baita. Termino absolutuetan, abuztuan ez zen milioi bat afiliatoria iritsi eta 997.071 izatera igaro zen. Abuztuko beherakada puntual hori ohikoa da EAEko ekonomian.

Sexuaren araberako azterketak adierazten du enplegua sortzeko erritmo galera batez ere emakumeak bereziki kontratatzen dituzten jardueretan kontzentratu zela. Horregatik, apaltzea nabarmenagoa izan da kolektibo horretan, afiliazioaren hazkunde erritmoa moteldu baita ekaineko %2,0tik abuztuan jasotako %1,2ra; gizonen kasuan, berriz, erritmoaren leuntze hori ez da hain nabarmena izan: ekaineko %1,3tik abuztuko %1,0ra.

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA GUZTIRA


Urte arteko aldakuntza tasa

ABUZTUKO AFILIAZIOA
%1,1




GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



AFILIAZIOA INDUSTRIAN


Urte arteko aldakuntza tasa



Jarduera adarren araberako bilakaerak adierazten du azken urtean afiliazio gehien galdu dituzten bi adarrak hezkuntza eta etxeko lanak direla, biek ala biek osagai femenino garbia baitute enpleguan. Bereziki deigarria da hezkuntzaren kasua, ikasturteari lotutako urte-

AFILIAZIOA ZERBITZUETAN

Urte arteko aldakuntza tasa



sasoitasun handia baitu; izan ere, ikasturte baten amaieran afiliazio kopurua murriztu egiten da, eta hurrengo ikasturtearen hasieran handitu. Gainerako jarduerak adar gehienek enplegu garbia sortzen jarraitu dute, iazko datuekin alderatuta.

GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTA DAUDEN LAGUNAK

	2023ko abuztua	2024ko abuztua	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	986.497	997.071	10.574
Industria manufakturagileak	173.011	174.214	1.203
Merkataritza	136.387	137.051	663
Osasun arloko jarduerak	116.565	119.132	2.567
Hezkuntza	70.488	69.536	-952
Administrazio jarduerak	68.290	69.210	920
Ostalaritza	64.837	66.692	1.855
Lanbide jarduerak	61.115	62.708	1.593
Eraikuntza	58.260	58.364	104
Administrazio publikoa	51.522	52.202	680
Garraioa	45.375	46.299	924
Etxeko langileak	29.143	28.325	-818
Informazioa eta komunikazioa	26.618	27.611	992
Bestelako zerbitzuak	25.564	25.530	-34
Jarduera artistikoak	16.859	17.364	506
Finantza jarduerak	16.912	17.273	361
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	12.087	11.856	-231
Ur horniketa	6.803	6.939	136
Higiezin jarduerak	4.323	4.391	68
Energia horniketak	1.731	1.762	31
Erauzketa industriak	533	527	-6
Lurraldez kanpoko erakundeak	75	87	12

Iturria: Gizarte Segurantza.



**Ekonomia, Lan eta
Enplegu Saila**



LANGABEZIA ERREGISTRATUA

Erregistratutako langabeziak igoera nabarmena izan zuen abuztuan


Langabezia erregistratuak %2,5eko urte arteko aldakuntza tasa jaso zuen abuztuan, eta, beraz, enplegu bulegoetan izena emandako pertsonen kopurua 111.363 pertsonara igo zen, hau da, 2023ko hilabete berean erregistratutakoak baino 2.705 pertsona gehiago. Azken hilabeteetan, langabeziaren hazkunde erritmoa bizkortu egin da. Sexuaren arabera, abuztuko datuek adieraz-

ten dute langabeziaren urte arteko hazkundeak bereziki kaltetu dituela emakumeak. Zehazki, kolektibo horretako langabeziaren aldakuntza tasa %2,8 izan zen, eta gizonena, berriz, %2,0. Horrek urrundu egiten du bi sexuen arteko konbergentzia prozesua, 2020ra arte bizi izan zena, eta 65.180 emakumeko eta 46.183 gizoneko saldoa uzten du langabezian.

LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GUZTIRA


Urte arteko aldakuntza tasa

LANGABEZIA ERREGISTRATUA.
ABUZTUA
%2,5




LANGABEZIA ERREGIST. EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa




LANGABEZIA. GAZTEAK

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA. ATZERRITARRAK

Urte arteko aldakuntza tasa



Erregistratutako langabeziaren hazkunde horren ezaugarrietako bat da zerbitzuen sektorean kontzentratuta dagoela, sektore horrek emakume gehienak enplegatzen baititu. Aitzitik, EAEko ekonomiaren beste hiru sektore nagusietan alde aurretik lan egin duten pertso-

nen artean beherakada txikiak izan dira. Beste ezaugarri bat da langabeziaren hazkundearen laurden bat lehen lana bilatzen ari diren pertsonen sarrerari zor zaiola. Azkenik, langabe gisa inskribatutako pertsona guztien %44k atzerriko nazionalitatea du.

LANGABEAK

	2023ko abuztua	2024ko abuztua	Aldakuntza
LANGABEAK GUZTIRA	108.658	111.363	2.705
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA			
Araba	19.032	18.490	-542
Bizkaia	60.905	62.995	2.090
Gipuzkoa	28.721	29.878	1.157
SEXU ETA ADINAREN ARABERA			
Gizonak	45.274	46.183	909
Emakumeak	63.384	65.180	1.796
25 urtetik beherakoak	8.383	8.959	576
25 urte baino gehiago dutenak	100.275	102.404	2.129
EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA			
Lehen arloa	1.889	1.868	-21
Industria	10.727	10.508	-219
Eraikuntza	6.209	6.001	-208
Zerbitzuak	76.784	79.268	2.484
Lehenago lan egin dutenak	95.609	97.645	2.036
Lehenago lan egin ez dutenak	13.049	13.718	669
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK			
Langabe atzerritarrak	18.261	19.460	1.199

Iturria: SEPE.




Ekonomia, Lan eta
Enplegu Saila

INFLAZIOA

Kontsumoko prezioen hazkundera moteldu egin zen uztailean

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Euskadiko KPIaren urte arteko aldakuntza tasa %2,9koa izan zen uztailean, hau da, aurreko datua baino sei hamarren txikiagoa. Horri gehitu behar zaio Estatuarentzat argitaratu berri den abuztuko aurrerapenak beste sei hamarren gehiago jaitsi dela adierazten duela, eta, beraz, argi geratzen da inflazioak izan dituen igoera handiak pixkanaka kontrolatzea lortzen ari dela.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2022	2023	2024ko uztaila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	8,0	3,6	2,9	2,9
Azpiko inflazioa (%84,6)	5,1	6,2	2,9	2,4
- Elikagai landuak (%15,4)	10,2	12,5	4,5	0,7
- Industria ondasunak (%20,2)	4,7	4,7	1,0	0,2
- Zerbitzuak (%49,0)	3,3	4,3	3,1	1,5
Hondar inflazioa (%15,4)	19,5	-6,4	3,1	0,4
- Landu gabeko janariak (%6,5)	10,8	7,3	3,6	0,2
- Energia (%8,9)	26,6	-17,0	2,3	0,2


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT PETROLIO UPELAREN PREZIOA


Hileko batez bestekoa. Euroak upeleko



Aurreko aldizkarietan adierazi den bezala, moderazioarekiko erresistentzia handienak atal gutxi batzuetan gauzatu dira. Hain zuzen ere, zerbitzuek %3,1eko urte arteko aldakuntza izan zuten, eta KPIan duten garrantzia kontuan hartuta, prezioen igoera osoaren erdia justifikatzen dute. Zerbitzuen barruan, jatetxeak eta hotelak aipatu behar dira, uztailen %3,8ko garestitzea izan baitzuten eta inflazio osoari sei hamarrene-

TTF GAS NATURALAREN PREZIOA

Hileko batez bestekoa. Euro MWh-ko



ko ekarpena egin baitzioten. Bestalde, elikagai elaboratuek (%4,5) eta freskoek (%3,6) prezioen igoera handiak metatzen jarraitzen dute, nahiz eta gero eta txikiagoak izan. Hala ere, KPIaren igoeraren zortzi hamarrenen erantzule dira. Inflazioari hamarren batzuk ematen dizkion beste osagai batzuk etxebizitza eta garraioa dira, baina apaldu egiten dira energiaren prezioak murriztu ahala.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2024ko uztaila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	2,9	2,8	2,6
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	4,3	3,1	1,6
Edari alkoholdunak eta tabakoa	4,4	3,7	5,2
Jantziak eta oinetakoak	1,6	0,9	2,2
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	3,1	3,2	2,6
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,3	0,5	-0,3
Osasuna	2,5	2,0	3,5
Garraioa	2,3	2,4	1,7
Komunikazioak	-0,1	-0,2	-2,1
Aisia eta kultura	0,7	1,6	2,5
Hezkuntza	2,0	2,8	4,0
Jatetxeak eta hotelak	3,8	4,7	4,8
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	3,7	3,2	4,1

Iturria: INE, Eurostat eta beste iturri batzuk.

EAEko atzerrirako esportazioak %2,0 hazi ziren bigarren hiruhilekoan

ESPORTAZIOAK GUZTIRA


Milioi euro

2. HIRUHILEKOKO ESPORTAZIOAK

ALDAKUNTZA TASA

%2,0


Eustaten arabera, atzerrira bidalitako ondasunen guztizko esportazioak %2,0 hazi ziren 2024ko bigarren hiruhilekoan. Tasa hori pandemiaren ondoren ikusitako bi digituko hazkundeak baino askoz txikiagoa bada ere, susperraldi nabarmena adierazten du, azken urteko uzkurduarekin eta hazkunde ia nuluekin alderatuta (-%15,9 aurtengo lehen hiruhilekoan). Hala ere, susperraldi horren egonkortasuna ez dago ziurtatuta oraindik; izan ere, apirilean (%4,9) eta maiatzean (%5,8) salmentak azkar igo ondoren, esportazioek behera egin zuten berriro ekainean (-%4,1).



Zehazki, aurtengo bigarren hiruhilekoan, EAEko produktuen salmentak 8.300 milioi euro ingurura iritsi ziren. Energiaren salmentak indartzearen ondorioz hazi zen batez ere, bereziki erregai mineralenak, %112,6 gehitu baitziren, Petronorren bultzadari esker. Gorakada esanguratsu horrek, makineriaren eta aparatuen, paperaren eta produktu kimikoen sektoreetako salmenten susperraldiarekin batera, automobilaren sektorearen beherakadari aurre egitea lortu zuen, bigarren hiruhilekoz jarraian behera egin baitzuen (-%17,0).


ESPORTAZIO EZ-ENERGETIKOAK

Milioi euro



ENERGIAKO ESPORTAZIOAK

Milioi euro



ESPORTAZIOAK HELMUGAREN ARABERA. 2024KO 2. HIRUHILEKOA

Herrialdea	Pisua %	Aldakuntza tasak
Frantzia	15,4	5,8
Alemania	14,1	-15,2
Erresuma Batua	7,9	26,7
AEB	6,4	-8,0
Italia	6,4	19,3
Herbehereak	4,8	20,6
Belgika	4,5	-8,4
Portugal	4,3	-1,2
Txina	2,5	4,3

EAEko esportazioek bazkide komertzial nagusien hoztearen ondorioak jasaten jarraitu zuten. Frantzian jarduera ekonomiko apalagoa izateak eta Alemaniaren apatiak euskal produktuen eskaria atzerritik murriztea ekarri zuten. Bi merkatu horiei egindako salmentek erritmoa moteldu zuten (Frantzia) eta uzkurdu ere egin ziren (Alemania). Nabarmenezkoa da merkatu britainiarraren bilakaera, hirugarren postua sendotu baitzuen, AEBak gaindituz.


ESPORTAZIOEN BANAKETA. 2024KO 2. HIRUHILEKOA

Arantzel taldea	Pisua %	Aldakuntza tasak
Ekipamendu ondasunak	47,9	2,2
Garraio materiala	26,1	-8,1
Makinak eta aparatuak	21,8	18,1
Ohiko metalak eta manuf.	21,7	-3,6
Produktu mineral, energetikoak	7,6	112,6
Plastikoa eta kautxua	5,8	-17,8
Nekazaritzako produktuak	5,3	-15,5
Produktu kimikoak	2,7	1,9
Papera	2,6	7,8

Eurotan neurtutako guztizko inportazioek ere gorakada izan zuten eta %3,3ko hazkundea izan zuten, uzkurduren ondoz ondoko lau hiruhilekori amaiera emanez. Horren guztiaren ondorioz, saldo osoak, berriro ere, superabita izan zuten, ia 985 milioi eurokoa, baina aurreko bi hiruhilekoetako mailen azpitik. Energia saldoa negatiboa izan zen eta 1.425 milioi eurora iritsi zen; saldo ez-energetikoa, berriz, Euskadiren aldekoa izan zen, 2.410 milioi eurotik gorakoa.

INPORTAZIOAK GUZTIRA


Milioi euro



Iturria: Eustat.

SALDOA GUZTIRA

Milioi euro





PMI KONPOSATUA

Eurogunearen jarduera ekonomikoa zertxobait hobetu da


Abuztuan, euroaren eremuko PMI konposatua 51,0an kokatu zen, hots, aurreko balioa baino ia puntu bat gehiago eta maiatzetik izan duen baliorik handiena. Posizio horrek adierazten du Europako ekonomia hazkunde eremuan dagoela, baina hazkunde hori oso apala dela. Hobekuntza txiki horren arrazoi bakarra zerbitzuen sektorea suspertu izana da, manufakturen ekoizpenak murrizten jarraitu baitzuen.

Hobekuntza hori hauteman bada ere, adierazleak Europako une ekonomikoari buruzko hainbat alderdi kezagarri islatzen ditu; izan ere, eskaera berriek, enpleguak eta enpresen konfiantzak okerrera egin zuten aurreko hilabetearekin alderatuta, batez ere industriaren sektorean. Aitzitik, kostuen presioak nabarmen jaitsi ziren, eta pandemiaren aurreko erritmoetara hurbiltzen ari dira.


PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA

2024KO ABUZTUA


51,0




MANUFAKTUREN PMI. EUROGUNEA




ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA



PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




Herraldeka, euroaren eremuko bi lokomotorren portaera guztiz kontrakoa izan da. Alde batetik, Alemaniak (48,4) ahulezia erakusten du berriro, eta ez du finkatu duela hilabete gutxi batzuk erakutsi bide zuen susperraldia. Aitzitik, Frantziak (53,1) datu harrigarria lortu zuen zerbitzuen martxa onari lotutako igoera indartsu batekin, ziurrenik Parisko Joko Olinpikoekin jasotako bultzadagatik.

Euroguneko beste bi potentziek ere balio positiboak izan zituzten, batez ere Espainiak (53,5), herrialdeko zerbitzuek bizi duten sendotasunari esker.


PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



PMI KONPOSATUA. ITALIA



PMI KONPOSATUA. ESPAINIA



Iturria: Markit





SENTIMENDU EKONOMIKOA


Eurogunearen sentimendu ekonomikoa ezkorra da oraindik

SENTIMENDU EKONOMIKOA. EUROGUNEA

2024KO ABUZTUA

96,6

Abuztuan, Europako Batzordeak argitaratutako sentimendu ekonomikoaren indizeak hainbat hamarren egin zuen hobera, eta 96,6 izan zen eurogunean eta 96,9, berriz, Europar Batasunean. Bi kasuetan, indizea 100 mailatik behera dago, 2000. urteaz geroztik izan den batez besteko historikoa adierazten duen zifra baita. Beraz, ezkortasun txiki bat nabari da egoera normala izango litzatekeenarekin alderatuta.




Jarduera sektoreen araberrako analisiak iradokitzen du zailtasunak industriaren igurikimene-tan daudela, bere batez bestekoaren azpitik dauden balioak erakusten baititu, eta datuetan ez da bilakaera positiborik hautematen. Aitzitik, eraikuntzak baikortasun arineko irudia eskaintzen du. Kontuan hartutako gainerako sektoreak (zerbitzuak, txikizkako merkataritza eta familiak) posizio neutroan daude.


SENTIMENDU EKONOMIKOA. EUROPAR BATASUNA

2024KO ABUZTUA

96,9




SENTIMENDU EKONOMIKOA. ALEMANIA



Herrialdeka, berriro ere, Espainiaren posizioa nabarmendu behar da, baikortasunez gainezka baitago eta bere batez bestekoa nabarmen gainditzen baitu, 105,4ko balioarekin, azken hiru urteetako altuena delarik. Espainiako ekonomian ere nolabaiteko ahulezia nabari da industrian, baina ez da Europa osorako deskribatutakoa bezain garrantzitsua. Aitzitik, zerbitzuen eta eraikuntzaren datuak oso onak dira.


Frantziak garbiki hobetu du bere posizioa abuztuan, 99,4ko balioan kokatu arte, egoera normal batetik oso gertu jada. Kasu honetan, in-

SENTIMENDU EKONOMIKOA. FRANTZIA




dustriaren balioa bere batez besteko historikoa baino pixka bat hobea da, baina herrialdeko zerbitzuak ez dira suspertzen. Kasurik kezagarriena Alemaniarena da, hilabete asko baitaramatza 90 inguruko balioetan, batez bestekoaren oso azpitik. Bertako industriak aurreikuspen oso negatiboak eta okertzeko joerarekin eskaintzen ditu, eta ezkortasun hori ez da gainerako sektoreekin konpentsatzea lortzen. Azkenik, Italiak (98,9) hilabete batzuk daramatza batez bestekoaren inguruan kokatzen, aldaketa handirik gabe.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ITALIA



SENTIMENDU EKONOMIKOA. ESPAINIA



Iturria: Europar Batzordea.



ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT

Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023	2023			2024	
			II	III	IV	I	II
BPG	5,4	1,8	1,5	1,7	1,7	1,7	1,8
Barneko azken kontsumoa	6,0	1,5	1,2	1,6	1,4	1,9	—
Familien kontsumoa	7,7	1,5	0,9	1,6	1,5	1,7	—
Administrazioaren kontsumoa	0,7	1,8	2,3	1,3	1,2	2,6	—
Kapital eraketa gordina	8,7	2,1	2,5	2,6	1,6	1,3	—
Barne eskaria	6,7	1,7	1,5	1,8	1,4	1,8	—
Esportazioak	17,1	1,2	-2,5	-0,6	1,6	-3,7	—
Inportazioak	18,7	1,0	-2,3	-0,3	1,3	-3,4	—
Lehen arloa	-8,7	-3,0	-5,9	-4,4	-2,6	-0,5	—
Industria eta energia	4,7	0,3	-0,7	0,5	0,1	0,1	—
Eraikuntza	6,7	2,1	3,6	2,5	1,5	2,0	—
Zerbitzuak	5,9	2,4	2,2	2,1	2,3	2,2	—
Balio erantsi gordina	5,5	1,8	1,5	1,7	1,6	1,6	—
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	4,6	1,6	1,0	1,5	1,9	1,9	—
Enplegua	2,8	1,7	1,6	1,7	1,9	2,0	1,8

EUSKAL EKONOMIAREN TERMOMETROA. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA

Ekaina

2023						2024					
Uzta.	Abuz.	Irail.	Urri.	Azar.	Aben.	Urtar.	Otsa.	Mart.	Apir.	Maia.	Eka.
85,6	85,7	88,3	88,4	86,0	83,1	83,6	82,0	84,5	91,4	97,4	99,3
X<50 Atzeraldia				50<X<100 Hazkunde leuna				X>100 Hazkunde bizia			

EAEko ekonomiaren termometroak 99,3ko balioa lortu zuen ekainean; horrela, hazkunde sendoko eremurantz hurbiltzen jarraitu zuen. Halaber iazko martxotik eskuratu duen baliorik altuena lortu du. Eskariaren ikuspegitik, jardueraren dinamismoari egindako ekarpenik handiena kontsumo pribatuaren hazkundearen eskutik etorri da eta, ordainetan, kanpoko saldoaren ekarpena galdu da inportazioen hazkundearen ondorioz. Industriaren egoerak ahuleziak markatuta jarraitzen du, baina aurreikuspenak hobetzen ari dira, eta enpleguaren hazkundeak zerbitzuen sektorea bultzatu du.

ESTADÍSTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

EKAINEKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2024			2024	2025
	II	III	IV		
BPG	1,9	2,0	2,1	1,9	2,1
Barneko azken kontsumoa	1,8	2,0	1,9	1,9	1,9
Familien kontsumoa	1,7	2,0	1,9	1,8	1,9
Administrazioaren kontsumoa	2,5	2,0	2,0	2,3	2,1
Kapital eraketa gordina	2,1	2,6	2,9	2,2	2,4
Barne eskariaren ekarpena	2,0	2,2	2,2	2,0	2,1
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,1	-0,2	-0,2	-0,1	-0,1
Lehen arloa	2,0	-0,4	1,8	0,7	3,0
Industria	0,5	1,0	1,3	0,7	1,6
Eraikuntza	1,7	1,7	1,6	1,8	1,8
Zerbitzuak	2,3	2,4	2,4	2,3	2,2
Balio erantsi gordina	1,9	2,0	2,1	1,9	2,1
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,8	1,9	2,1	1,9	2,1
Lanaldi osoko lanpostuak	1,8	1,7	1,9	1,8	1,6
Landunak (BJA)	1,3	1,3	1,1	1,4	1,1

EAEKO BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2024	2025		2024	2025
BBVA	2,3	2,5	Eusko Jaurlaritza	1,9	2,1
Funcas	2,3	—	Hispalink (BPGaren aldakuntza)	1,6	2,1
Laboral kutxa	2,0	—	Confebask	1,6	—
Ceprede	1,9	2,4			

ESTADÍSTIKA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023	2023			2024	
			II	III	IV	I	II
BPG	5,8	2,5	2,0	1,9	2,2	2,6	2,9
Kontsumo pribatua	4,8	1,8	1,7	0,4	2,4	2,5	2,3
Kontsumo publikoa	-0,2	3,8	4,4	4,7	4,2	3,4	2,3
Kapital finkoaren eraketa gordina	2,4	0,8	1,3	0,0	2,1	1,8	1,2
- Aktibo finko materialak	2,1	1,0	1,7	0,1	1,9	1,6	1,3
- Eraikuntzan	2,6	2,3	3,5	1,1	1,6	3,4	1,2
- Ekipamendu ondasunetan	1,9	-1,6	-1,8	-1,9	1,9	-1,8	1,3
- Jabetza intelektualaren produktuak	3,8	-0,3	-0,8	-0,4	3,0	2,7	0,8
Nazio eskaria (ekarpena)	2,9	1,7	1,8	1,4	2,2	2,3	2,0
Esportazioak	15,2	2,3	0,0	-1,0	1,1	-0,2	3,6
Inportazioak	7,0	0,3	-0,2	-2,4	1,5	-0,7	1,4

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2024	2025		2024	2025
AFI	2,8	2,1	HSBC	2,3	1,8
Oxford Economics	2,8	1,9	S&P Global Market Intel	2,2	1,7
Capital Economics	2,7	2,6	S&P Global Ratings	2,2	1,9
Econ Intelligence Unit	2,7	2,2	UniCredit	2,2	1,5
Rabobank	2,7	1,9	UBS	2,2	1,9
Citigroup	2,7	1,9	CEPREDE	2,1	2,4
Moody's Analytics	2,6	1,8	Fitch Ratings	2,1	2,0
Grupo Santander	2,6	2,0	Batez bestekoa	2,4	1,9
Repsol	2,6	2,0	Gobernua (2024-04)	2,0	1,9
BBVA	2,5	2,1	Espainiako Bankua (2024-06)	2,3	1,9
Societe Generale CIB	2,4	1,6	Europar Batzordea (2024-05)	2,1	1,9
Bloomberg Economics	2,3	1,7	NDF (2024-07)	2,4	2,1
CEOE	2,3	1,8	ELGA (2024-05)	1,8	2,0

Iturria: Consensus Forecast.

ESTADÍSTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023	2023			2024	
			II	III	IV	I	II
AEB	1,9	2,5	2,4	2,9	3,1	2,9	3,1
Txina	3,0	5,2	6,3	4,9	5,2	5,3	4,7
Japonia	1,0	1,9	2,0	1,3	0,9	-0,9	-0,8
Kanada	3,8	1,2	1,3	0,7	1,0	0,6	0,9
Europar Batasuna	3,4	0,4	0,5	0,1	0,4	0,7	0,8
Eurogunea	3,5	0,4	0,5	0,0	0,2	0,5	0,6
Alemania	1,8	-0,2	0,1	-0,3	-0,2	-0,1	0,0
Frantzia	2,6	0,9	1,3	0,9	1,3	1,5	1,0
Erresuma Batua	4,3	0,1	0,2	0,2	-0,2	0,3	0,9
Italia	4,0	0,9	0,6	0,6	0,7	0,6	0,9
Herbehereak	5,0	0,1	-0,5	-0,7	-0,5	-0,6	0,8

Iturria: Eurostat eta ELGA.

CONSENSUS FORECAST. 2024KO ABUZTUA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2024	2025	2024	2025	2024	2025
AEB	2,5	1,7	3,0	2,2	4,1	4,4
Japonia	0,0	1,2	2,5	2,1	2,5	2,4
Kanada	1,0	1,8	2,6	2,1	6,3	6,5
Europar Batasuna	1,0	1,6	2,5	2,1	—	—
Eurogunea	0,8	1,3	2,4	2,0	6,5	6,5
Alemania	0,1	1,0	2,4	2,0	6,0	5,9
Frantzia	1,1	1,1	2,3	1,8	7,4	7,5
Erresuma Batua	1,0	1,2	2,6	2,3	4,4	4,6
Italia	0,8	1,0	1,2	1,8	7,2	7,2
Espainia	2,4	1,9	3,1	2,1	—	—
Herbehereak	0,1	1,4	3,1	2,3	—	—

Iturria: Consensus Forecast.